

AHOA BETE HOTS jardunaldiak  
2010ko uztailaren 22, 23 eta 24an  
Mintzola. Subijana Etxea (Villabona)



## ***ahoa bete hots*** **jardunaldiak**

*Ahozkotasuna kulturaren, eguneroko jardun berezituetan eta haur munduan. Hiru esparru mugatu dira euskararen ahozko gaiez eginiko gogoetak bildu eta esperientziak jasotzeko. Jakin nahi dugu gaurko ahozko ekoizpenak zertan diren hiru eremuotan, eta etorkizunari begirako zein gako proposatzen dituzten jardunaldiko partaideek.*

### **Nori zuzendua**

Irakasle, kazetari, aurkezle, bertsolari, ipuin kontalari, antzezle, euskara teknikari, ikerlari, eta oro har ahozkotasunak bizi duen orori.

### **Noiz eta non**

2010eko uztailaren 22, 23 eta 24a  
Mintzola Fundazioa. Subijana Etxea, Villabona (Gipuzkoa)

### **Matrikula prezioa**

Matrikula arrunta: 50 euro  
EHBEko bazkideak: 35 euro (%30eko beherapena)  
Ikasle eta langabetuak: 35 euro

### **Izen-ematea**

Telefono zk.: 943 69 41 29  
e-maila: [administrazioa@bertsozale.com](mailto:administrazioa@bertsozale.com)  
Izen-emateko epea: 2010eko ekainaren 21tik uztailaren 16ra  
Ordainketa: 2101 0005 13000684 6646 zenbakian  
Datuk: izena, abizenak, helbidea, NA, telefonoa, e-posta eta sorteguna

AHOA BETE HOTS jardunaldiak  
2010ko uztailaren 22, 23 eta 24an  
Mintzola. Subijana Etxea (Villabona)



## *ahoa bete hots* jardunaldiak

### Agiriak

Ordainketa agiria bidali e-postaz edo postaz (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Kale Nagusia 70 - 20.150 Villabona. Gipuzkoa).

Bestela, transferentziaren azalpenean “ABH” eta norberaren izen-abizenak idatzi eta ordain agiria jardunaldien egunean ekarri.

Langabetu edo ikasleak direnak, INEMeko agiria zein Unibertsitateko matrikula agiria igorri beharko dute.

### EHUren kredituak

Ikastaro honetan parte hartzeagatik Euskal Herriko Unibertsitateak kreditu 1 emango du.

### Babesleak

Bizkaiko Foru Aldundia



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Kutxa

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eta Mintzola Fundazioaren  
elkarlanarekin antolatua

## **ahoa bete hots** **egitaraua**

### **UZTAILAK 22 .. .... AHOZKOTASUNA ETA HAURRAK**

- 08:30ean **Jardunaldien hasiera. Aurkezpena**
- 9:00etan **Piter Ansorena** (musikaria eta pailazoa)  
*“Eskara la kakatua?”. Ahozkotasuna eta aditasuna*
- 10:05ean **Gorka Tolosa** (bertsolaria eta antzezlea)  
*Ahozkotasunetik, haurrentzako sorkuntza konkretu bat: Iñaxito. Bertsolaritza eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia*
- 11:05ean **Itziar Rekalde** (ipuin kontalaria, antzezlea eta antzerki zuzendaria)  
*Zertaz ari gara ipuinetaz ari garenean?*
- 12:30etan **Mahai-ingurua: Piter Ansorena, Gorka Tolosa eta Itziar Rekalde**  
Moderatzailea: Xabier Sukia (irradi esataria eta bertsolaria)
- 13:30ean Galdera-erantzunak
- 14:00etan Bukaera

## **ahoa bete hots** **egitaraua**

### **UZTAILAK 23 .....AHOZKOTASUNA HEZKUNTZAN, LITERATURAN ETA HEDABIDEETAN**

- 09:00etan **Miren Ibarluzea** (Labayru Ikastegia – Herri Ondarea atala)  
*Ahozkotasuna hezkuntzan: ahozkotasuna lantzeko materialak garatzea*
- 10:05ean **Joan Kruz Igerabide** (idazlea eta EHUko irakaslea)  
*Ahozkotasuna eta literatura*
- 11:05ean **Julian Beloki** (kazetaria eta komunikazioan aditua)  
*Hik nola esango hukek/n?*
- 12:30ean **Mahai-ingurua: Miren Ibarluzea, Joan Kruz Igerabide eta Julian Beloki**  
Moderatzailea: Laxaro Azkune (irradi esataria eta gai-jartzailea)
- 13:30ean Galdera-erantzunak
- 14:00etan Bukaera

### **UZTAILAK 24.....AHOZKOTASUNA EUSKAL KULTURAN; LEHEN, ORAIN ETA GERO**

- 09:00etan **Antton Luku** (Lizeoko irakaslea eta idazlea)  
*Zer da Euskal antzerkia?*
- 10:05ean **Jose Angel Irigaray** (idazlea)  
*Modernitatearen hastapenak. 60. hamarkadako kultur garapena*
- 11:05ean **Lorea Agirre** (kazetaria eta *Sorguneak* ikertegiko kidea)  
*Nola egiten dugun horrek nolakoak garen esaten baitu*
- 12:30ean **Mahai-ingurua: Euskal kultura gaur. Jose Angel Irigaray, Antton Luku eta Lorea Agirre**  
Moderatzailea: Joxean Agirre (kazetaria eta idazlea)
- 13:30ean Galdera-erantzunak
- 14:00etan Bukaera

## ***ahoa bete hots*** **laburpenak**

### **UZTAILAK 22.....AHOZKOTASUNA ETA HAURRAK**

#### ***Eskara la kakatua? Ahozkotasuna eta aditasuna***

Piter Ansorena (musikaria eta pailazoa)

Eskara la kakatua? Ahozkotasuna eta aditasuna. Eufonia eta kakofonia (barka). Haur guztiak ez dira ergelak. Xehetu behar badizut, ulertuko ez duzun seinale. Eta, ulertuko ez baduzu, zertarako xehetuko dizut?

Hala ere, euskaltzaleok ohituta gaude amore ematen. Xehetuko dizuet bada. Ahozkotasuna, ahozko hizkuntzarekin harreman jostakin, aberats eta librea, behar-beharrezkoa da hizkuntza batekin maitemintzeko. Hurrek, heldu ondoren ere, euskaraz jardutea nahi badugu, horixe behar dute. Ahozkotasanak, ordea, egungo gure inguruan interferentzia handiak ditu: inozokeria eta naturaltasun eza handienak. Mundu berriaren gaitz hauei aurre egiteko, gezurra ematen badu ere, tradizioak balio egokia du.

#### **Ahozkotasunetik, haurrentzako sorkuntza konkretu bat: Iñaxito.**

#### **Bertsolaritza eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia**

Gorka Tolosa (bertsolaria eta antzezlea)

Bertsoa eta antzerkia. Antzerkia eta bertsoa. Bi hitz, bi diziplina. Bataren eta bestearen baturaz biak bat eginda. Horra hor, Bertso-Antzerkia.

Eta horixe bera da Trikuharri taldeak jorratutako bidea. Bide jorratuaren gainean hausnartu eta handik ateratako emaitzen inguruan hitz egingo da.

Zein ibilbide egin dugu bertso mundutik abiatuz bertsoa antzerkiarekin txertatzeko? Zerk bultza gintuen horretara? Hurrei begira bertsogintzak

eskaini zezakeena osatu eta indartu nahi izan dugu. Nola? Bertso eskoletan hainbestetan erabili izan diren formatuak baliatuz.

*Inaxitoren ametsak; 1, 2, 3... Inaxito!; Galtzagorriei to, Inaxito! 3 antzerki, 3 abiapuntu eta 3 ikasbide guretzat. Gure sorkuntzek bertsogintzari eta geuri emandakoak zer ote dira? Gutxien-gutxienean, abenturak eta gehienez...*

### **Zertaz ari gara ipuinetaz ari garenean?**

Itziar Rekalde (ipuin kontalaria, antzezlea eta antzerki zuzendaria)

Herrien istorioa ahoz kotasunaren garapenari lotuta dago, planetaren toki guztietan. Imajinarioa deitzen dugun hori belaunaldiz belaunaldi joan da sortzen eta garatzen gizarte bakoitzean, identitate pertsonala eta taldekoa sortu arte. Ipuinek, besteak beste, gizarte bakoitzaren sorreraren oinarriak gordetzen dituzte; Ulergaitza ulergarria bihurtzen dute, Mitoak sortuz; Beldurrak uxatzen dituzte eta bizitzan aurkituko ditugun arriskuak ezagutzen eta garatzen irakasten dizkigute. Heziketaren prozesuan menderatu behar ditugun pausoak ematen laguntzen dizkigute, munduarekin ditugun loturak adieraziz... Eta horrela izan da beti ipuin tradizionalak aztertzen baditugu. Beti eta leku guztietan gainera. Baina zer gertatzen da gaur egun mendebalde honetako gizartean? Galdu dugu ahoz kontatzeko ohitura; galdu dira guneak, kontalariak, ikus-entzunezko tresnerien mesedetan. MEMORIA ari gara galtzen.

## UZTAILAK 23 .....AHOZKOTASUNA HEZKUNTZAN, LITERATURAN ETA HEDABIDEETAN

### **Ahazkotasuna hezkuntzan: Ahazkotasuna lantzeko materialak garatzea**

Miren Ibarluzea (Labayru Ikastegia – Herri Ondarea atala)

Egungo bizimoduak ekarritako aldaketak direla-eta, igarri-igarria da ahazkotasunaren berezko transmisioa galdu edo ahuldu egin dela. Ez dira gutxi hezitzaile eta profesionalen artean, oinarritzko hezkuntza amaitu duten gazteen berbaz komunikatzeko gaitasunik ezaz kexatzen direnak. Orain artean ikasgelan landutako hizkuntza eredu (ia) bakarra idatzia izan da, kontuan hartu barik idatzia eta ahazkoa kode ezberdinak direna. Ahazkotasuna lantzeko material egokiaren hutsunea gorria da gurean; edo zela-halako materialik dagoenean ere, gehienbat ahazko adierazpenak jasotzen dira, buruz ikasteko edo idatziz lantzeko, baina ez ikasleak ahazko komunikazioan treba daitezen. Bide berriak urratu nahirik, lekuan-lekuko unitate didaktikoak garatu ditu Labayru Ikastegiko Herri Ondareko lantaldeak azken urteotan. Hizkuntza eta etnografiaren bilketan oinarria duen material multimediaren sorkuntza prozesua eta emaitza aurkeztea izango da *Ahazkotasuna hezkuntzan txertatzeko materialak garatzea* saioaren helburua, hezitzaileek, gurasoek, kultur-eragileek behar bezalako erreferentziak izan ditzaten.

### **Ahazkotasuna eta literatura**

Joan Kruz Igerabide (idazlea eta EHUko irakaslea)

Ahazko tradizioa eta poesia oso loturik daude. Lehen poemak, aztertzaileek iradokitzen dutenez, silaba-erritmo hutsak ziren, eta egoera emozionalak adierazteko erabiltzen ziren. Badugu halakoen zantzurik euskal ahazko tradizioan.

## Hik nola esango hukek/n?

Julian Beloki (kazetaria eta komunikazioan aditua)

1975eko irailean hitz egin nuen Donostiako Herri Irratian estreinakoz. Ordudanik ia beti euskaraz lan egin izan dut, kazetari eta esatari zereginetan aritu izan naizenetan. Batez ere, irratiz.

Neure entzumenaren laborategian zintzilik eta eskura eduki izan dut beti izenburutzat darabilkidan galdera hori. Ez da beti galdera ozena izaten. Maiz, entzumenaren barrunbean, mintzairaren senaren oihartzuna sortzeko bakarrik erabili ohi dut. Baina, askotan, norbaiti galdetu behar izaten diot. Lagungarri, osagarri, lasagarri: hik nola esango hukek/n halako edo bestelako? Hiztegi eta gramatika kontsultez haratago.

Zorionez, inoiz baino eredu aukera zabalagoa daukagu gaur egun. Belarri askotara iristen diren hedabidetan gainera. Euskarazko ahozketasunaren kaleidoskopia prisma gehiagokoa da. Forma eta kolore askotako irudiak sortzen dituena. Sentiberatasun eta adierazkortasun ikuttu eta igurtzi asko eragiten dituena. Zuzentasunean eta egokitasunean eredu ezberdin asko taxutzen dituena.

Baina, nola eraikitzen du gaurko esatariak bere baitan ahozketasun komunikatibo egokia? Nola egokitzen du esateko modua entzuteko moldeetara? Nola uztartzen ditugu adierazkortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna? Nola partekatzen ditugu errealitate zatiak, ahoz aho eta belarri belarri, kontakizun egokitan, entzule eta ikusleen arreta eta atxikimendua lortzeko?

Ordubeteko hitzaldia ahalik eta modurik praktikoenean burutzen saiatuko naiz, bertara bilduko direnen parte-hartze zuzenarekin, esperientzia, gogoetak eta ikasketak ahalik eta modurik osagarrienean uztartzeko ahaleginean.

## UZTAILAK 24.....AHOZKOTASUNA EUSKAL KULTURAN; LEHEN, ORAIN ETA GERO

### Zer da euskal antzerkia?

Antton Luku (Lizeoko irakaslea eta idazlea)

Antzerkia hitz kultua edo neologismoa da euskaraz teatro errateko. Antzoki batean ematen da teloi eta guzti, definizioz kantutik eta dantzatik bereizten da eta ondorioz kantua eta dantza nahasten dituzten obrak aipatzen dira sailkapen zurrun horretatik jalgitzen garelarik. Hortik dauzkagun zailtasunak herri errepresentazio, edo erritu zenbaitzuen sailkatzeko edo izendatzeko. Haatik antropologia teatralaren taxonomia baliatzen bada irakurketa ezberdina egin daiteke gure praktika eta gustuez eta adibidez, estetika barne, gure dantza edo inauteriak ez dira antzerkiaz hain urrun...

### Nola egiten dugun horrek nolakoak garen esaten baitu

Lorea Agirre (kazetaria eta *Sorguneak* ikertegiko kidea).

Euskal kulturgintza da euskarari darion kulturgintza, eta euskal hizkuntza komunitatea sinbolikoki elikatzen duen sorkuntza, eta berebiziko egitekoa du gure herrigintzan.

Euskal kultura sakonetik biziberritzeko giltza, modu, eredu edota kultur politikez haratago, hizkuntza da: nola egiten dugun horrek nolakoak garen esaten baitu. Alegia: euskara kontzienteki erdigunean jartzeak modu jakin bateko eredu eta kultur politikagintza eskatzen edo ekartzen du halabeharrez.

Gurea, jokoan duguna, ez da instrumentaltasun kontu bat, ez da kultur politika neurriak aplikatze soila, ez hori bakarrik: komunitate baten ezagutza lortzea, izatearen sentimenduak zabaltzea eta maila desberdinetako eragile kontzientziatuak sortzea baizik. Euskal kulturaren biziberritzearen historiak hori erakusten digu.

Hauxe da, oinarrian, Mondragon Unibertsitatearen baitako Huhezi fakultateko Sorguneak ikertegiak euskal kulturaren gaineko ikerketatik atera dituen ondorioak.

### **Modernitatearen hastapenak. 60. hamarkadako kultur garapena**

Jose Angel Irigaray (idazlea)

XX. mendeko 60ko hamarkadan sortu eta garatu kultur mugimendua bide berriak jorratzen hasi zen, modernitatearenak. Arte plastikoetatik kantagintzaraino. Munduan gertatzen ari zirenen antzera, garaikide gisan: artean, antzerkian, musika eta kantagintzan, literaturan, soziologian, ahozkotasunean... pentsamenduan. Dinamika horretan Jorge Oteizaren eragina baitezpadakoa izan zen; ED 13 taldea ere haren muinean ibili zen. Hizkuntzaren eta kulturaren lurraldea -euskal izaera- sendatzeko eta sendotzeko erronkan, dinamika osoa sekulako jauzi kualitatiboa izan zen, ostertz eta aukera berriak zabalduz modu sustraitu eta irekian. Garaiak behar zuena. Hortik baitezpadako erreferente bilakatu izana.